

<p><b><i>Ikasleek egindako PROPOSAMENAK (06-07 ikasturtea)</i></b></p>	<p><b><i>Arrasateko Udalak hartutako neurriak (erabakiak eta egindako lanak)</i></b></p>
<p>- Uribarri auzoko Ekutioarria hortxe dugu, laster hil zorian eta suntsituta, horrelakorik gerta ez dadin neurriak hartu behar dira; babestu eta zaindu eureka ekosistema bezala mantenduz, bere bioaniztasun guztiarekin. Udalak aztertu beharko zuen eta ahal duen guztia egin.</p>	<p>- Arrasateko tekniko eta político batzuk bertara joan ziren eta hango berezitasuna baloratu egin zuten. Ondoren Ikutixon zabortegia eraikitzeko zegoen proiektua gelditzea erabaki zen.</p>
<p>- Kaleko iturriei dagokienean, nahiz eta zaila izan, ondo legote iturrietan ur jarita izatea botota sakatzen dugun bitartean soilik. Beste aukera bat, zailagoa bada ere, galdutako ura hoditeri batetik pasatu eta depositu batean jaso eta kaleak garbitzeko edo lorategiak ureztatzeko erabiltzea. Bestetik, iturri mota batzuk (Seberon daudenak adibidez) egokiagoak dira, ura ez da hainbeste galtzen; beraz, berriak jarri behar badira hori kontuan hartu.</p>	<p>- Jarrita dauden iturriekin momentuz ez da ezer egin baina berriak jartzerakoan ura ez galtzeko sistemarik onena jartzen saiatzen da.</p>
<p>- Deba eta Aramaio ibaietako ertzak garbi mantendu behar dira eta horretarako agian udalak jende gehiago jarri lan hori egiteko maiztasun handiagoarekin.</p>	<p>- Duela bi urte, Estola Agenda 21eko ikasleen eskaera betetzeko asmoz, eureka garbiketarako egiteko eskatu zitzaion Ingurumen Sailari; proposamena onartu egin zen eta gaur urtean birritan (ekaina eta azaroa) egiten da. Bestetik Ingurumen Sailaren laguntzarako brigadak ereka bazterren mantenua egiten du eta artero Aste Berdea programaren barruan ere Mojategi inguruan eureka bazterretan garbiketa egiten da.</p>
<p>-Sukaldeko olio biltzeko sistemaren inguruan informazio gehiago banatzea. Herritarrei ondo azaltzea zergatik den hain garrantzitsu etxeko olio hori komunitate edo fregaderatik ez botatzea.</p>	<p>- Debagoieneko Mankomunitateak prestatu duen berziklaiari buruzko gida berria 2007an banatu egin da. Arrasateko Udalak urte berean olio biltzeko edukiontzia jarri ditu Erico hainbat tokitan eta etxez etxe zerbitzu berri honi buruzko informazioa eta olio etxean jasotzeko ontziak banatu egin ditu.</p>
<p>- Edukiontzien kokapena ondo aztertu eta ea gehiago jarri behar diren ere aztertzea.</p>	<p>- 2005.urtetik aurrera Debagoieneko Mankomunitateko langile batek edukiontzien kontrola eramaten du. Herritarren kezak edo/eta iradokizunak udaletxera eramaten dira eta handik mankomunitatera pastasen dira beharrezkoa den azterketa egin ahal izateko.</p>
<p>- Paperontziak jarri behar diren toki guztietan.</p>	<p>- Herrian paperontziak jartzeko azterketa 2006an udal teknikari batek egin zuen. Bestetik kale garbiketarako egiten duen zerbitzuak paperontziren bat apurtuta ikusiz gero abisua pasatzen dio Udalari eta konpondu egiten da.</p>
<p>- Txakur kaken arazoarekin zerbait serioa egitea. Aztertzea beste hiri batzuetan egiten</p>	<p>- Arrasateko Udalak 2006.urtean jadanik txakur kakak jasotzeko zaborontziak eta hiru “pipican” jarri zituen. Urte berean foileto bat prestatu eta banatu egin zen etxe guztietan</p>

dena eta neurriak hartu (ordenantza berri bat, eta abar).	(“Gure hiriko animaliekin elkarbizitzeko gida”)
- Zaborra edukiontzi berdeetara ateratzeko ordutegiari buruzko informazioa ondo zabaldu eta hori errespetatzen ez dutenen aurrean neurriak hartzen hasi.	- Mankomunitateak edukiontzi bakoitzean bota behar diren zaborrak eta zaborrak botatzeko ordutegiak azaltzen duen gida berria banatu egin du 2007.urtean. Bestetik kontenedore berdeetan pegatina batzuk jarrita daude, errespetatu behar diren ordutegiekin. Mankomunitateak ere urtero banatzen ditu bailarako herrietako etxeetan informazio hori.
- Oraindik beharrezkoak dira herritarrentzat informazio, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak. Kontsumoa jaistea denon eskutan dago baina aurretik ondo kontzientziatuta egon behar dugu.	- Arrasateko Udalak herritarrei zuzendutako kanpaina batzuk martxan jartzen ditu urtero: Aste Berdea (Ingurumen Eguna ospatzeko ekintzak). 2007ko gabonetan kontsumoarekin lotutako hainbat ekintza burutu ditu: erakusketa,... Herriko eskolekin 5 urte daramatzagu Eskolako Agenda 21 proiektua burutzen eta Udalako Ingurumen Eskolatik ere urtean hainbat ekintza prestatzen eta burutzen dira: Zuhaitz eguna, zaborraren kanpaina,...
- Udal ekipamendu guztietan plaka fotoboltaikoak jartzen jarraitu behar da.	- Arrasateko Udaleko instalazioetan zortzi plaka fotoboltaiko jarri dira. 2002an jarri ziren lehenak: Arizmendi Ikastola (Ferixalekua Gunea), Arrasate Herri Eskola eta Udalako Ingurumen Eskolan. Hurrengo urteetan beste sei gehiago jarri dira: Emakume Txokoa (2 instalazio), Bedoñabe Herri Eskola, Musakola kiruldegia eta Jokin Zaitegi eskolan. Lan horrekin jarraitzea kontenplazten da. Bestaldetik “Codigo Técnico de la Edificación” delakoaren ondorioz eraikin berrietan edota berrikuntza integraletan behartua daude energia berriztagarriak jartzeko, beraz obra berriak egitean, printzipioz, instalazio fotoboltaikoak, termikoak,..., jartzeko beharra dago. Bestetik instalazio solarrak jartzeko Ordenantza onartu du udalak eta laister indarrean jarriko da. Dirulaguntzak ematea ere kontenplazten da.
- Udaletxean energia eta uraren kontsumoa jaisteko neurriak hartu behar dira.	- Udal instalazioetan uraren presioa murriztea erabaki da eta Garapen Estrategiko departamentutik udal langileei mezuak bidaltzen zaizkie energia kontsumoa jaisteko.
- Herri barnean garraio publikoa indartu behar da. Agian jarritako prezioa merkeu behar da eta nolabait urbanoa erabiltzen dutenak saritu.	- Arrasateko Udalak 2000.urtean jarri zuen martxan zerbitzu hau eta prezioei dagokienez “bonobus”aren formula erabili izan da. Biletaren prezioa euro batekoa bada erdia baino gutxiago bonobusarekin. Bestetik diru sarrera urriko pertsoneri laguntzak ematen zaizkio (bonobusaren doaneko birkargak ematen zaizkie). Mugikortasun Asteko ekintzen artean hiri-barruko bonobusak banatzen dira berauen erabilpena bultzatzeko.
- Urbanoaren maiztasuna handitu eta linea berrien beharra aztertu.	- 2004.urtean Mugikortasun Plana egin zen. Bertan aipatutakoa aztertu egiten zen eta hurrengo urteetan hainbat neurri aurrera eramango dira.
- Inguruko beste herrietara (batez ere Bizkaia aldera) joateko dauden autobus kopurua handitu eta ordutegi zabalagoa ipini. Hori udalak ezin badu egin hitz egin dezala dagokioan erakundearekin arazo larri hori konpontzeko.	- Arrasateko Udalak hainbat bileretan egon da bai Gipuzkoa bai Bizkaiko Diputazioko arduradunekin dauden garraio publikoko zerbitzuak hobetzeko. Bizkai Bus zerbitzukoekin kontaktuak izan dira Elorrio-Arrasate zerbitzua martxan jarri ahal izateko. Momentuz oso gutxi lortu da Bizkaiarekin dauden lineak hobetzeko. Gipuzkoan hainbat hobekuntza eman dira.
- Bizikletentzat bide gorriak egin.	- Udalak egin duen Mugikortasun Planean bizikletentzat bide gorriak egitea planteatzen da. Urbanizazio berrietan bidegorriak egin behar dira (Garaia, Ibarreta, Zerrajera 2, Fagor San Andres, Markuleta, Mugarri eta Meka). 2007.urtean Garaian egin da. Bestetik herriko

<p>- Energia kontsumoa gutxitzeko udal instalazioetan esparru batzuetan argia noiz piztu jakiteko mugimendu sentsoreak jarri beharko ziren.</p>	<p>hainbat tokitan bizikletak aparkatzeko tokiak prestatu dira.</p> <p>- Sentsore horiek ez daude jarrita gure instalazioetan orain arte behar hori ikusi ez delako. Energiaren kontsumoa gutxitzeko hainbat ekintza burutu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Energia kontsumoen jarraipena, datuak mailatik kanpo daudenean Iberdrolari abisua pasatzen zaio arazoa detektatu eta konpontzeko.</li> <li>. “Bulego osasuntsuago, iraunkorrago eta ekologikoagoa” liburuxka egin eta banatu egin da.</li> <li>. EKOSKANa burutu da udaletxeko eraikinean: 2007.urtean energia gaiarekin.</li> </ul>
---	---